

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko MARTXOAREN 1eko

Herri Biltzarra

Bi mila eta hogeita bateko martxoaren lehen egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Didier Irastorza, ordeak, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy, Carmen Gonzalez, Nathalie Aïçaguerre herri kontseilariak.

Ahalordeak: Didier Irastorza-k Eliane Aizpuru-ri, Peio Etcheleku-k Vincent Goytino-ri, Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i, Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-i, Nathalie Aïçaguerre-k Argitxu Hiriart-Urruty-ri.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

08 – Aurrekontu nagusiko 2020ko kudeaketa kontuen bozkatzeari (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio aurrekontu nagusiko 2020ko kudeaketa kontuen onartzea. Herriko hartzaileak egin dituen kudeaketa kontu hauek 2020ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean egin diren eragiketarak erakusten dituzte, egun gehigarriarenak barne izanik, eta 2020ko administrazio kontuekin osoki bat egiten dute.

Aho batez onartua.

09 - Hilobi eta columbariumen aurrekontu nagusiko 2020ko kudeaketa kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarkideei galdegin zaie hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiko 2020ko kudeaketa kontuak onartzea. Herriko hartzaileak egin dituen kudeaketa kontu hauek 2020ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean egin diren eragiketak erakusten dituzte, egun gehigarriarenak barne izanik, eta 2020ko administrazio kontuekin osoki bat egiten dute.

Aho batez onartua.

10 – Aurrekontu nagusiko 2020ko administrazio kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Auzapez jaunak proposatu du Eliane Aizpuru lehen auzapez ordea izan dadila saioko presidente 2020ko administrazio kontuen azterketarako.

Aho batez onartua.

Auzapeza gelatik atera da.

Herri biltzarkideei galdegin zaie 2020ko aurrekontu nagusiko administrazio kontuak onartzea, funtzionamendu sailean 566 283,85 €ko etekin positibo batekin eta inbertsio sailean 824 566,39,03 €ko emaitza positibo batekin, orotara 1 390 850,24 €ko soberakin batekin bukatzen delarik.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Othatceguy anderea bilkuratek atera da.

11 – Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiko 2020ko administrazio kontuen bozkatzea (Aizpuru andereak aurkeztua).

Herri biltzarkideei galdegin zaie funtzionamendu saila baizik ez duen hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiko 2020ko administrazio kontuen onartzea, 7 451,56 €ko soberakin batekin.

Aho batez onartua.

Auzapeza gelara itzuli da.

12 – 2020ko emaitzen esleipena (Aizpuru andereak aurkeztua).

2020ko administrazio kontuak onartu-eta, herri biltzarrak funtzionamenduko emaitzaren esleipena onartu behar du, honako proposamenarekin:

- 2020ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko 566 283,85 €ko emaitza positiboa honela banatzea: 366 283,58 € (1068 artikulua) inbertsio sartzetara eta 200 000,00 € funtzionamendu sartzetara, 2021eko hasierako aurrekontuan.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

- 2020ko hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiko 7 451,56 €ko emaitza positiboa 2021eko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzetara.

Aho batez onartua.

13 – 2020ko funts politikaren bilana (Auzapezak aurkezturik).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, herri biltzarrari proposatu dio 2020ko aurrekontu nagusiko lur funts politikaren bilana bozkatzea, urtero herri biltzarrari aurkezten zaiona eta azalpen ohar sintetikoan zehaztua den bezala.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, herri biltzarrari proposatu dio hilobi eta columbariumen 2020ko aurrekontu erantsiko lur funts politikaren bilana bozkatzea, urtero herri biltzarrari aurkezten zaiona eta azalpen ohar sintetikoan zehaztua den bezala.

Aho batez onartua.

14 – Tennis zelai estalien egiteko laguntza baten esleipena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio Euskal Hirigune Elkargoak esleitu dion « Action territoriale – Ingénierie et aide aux communes » izenburuko 249 826 €ko diru laguntza onartzea, Michel Labéguerie kirol eremuan bi tennis zelaien egiteko, eta Auzapezari baimena ematea horretarako hitzarmena izenpe dezan.

Aho batez onartua.

15 – 2020-2021 ikasturterako goi mailako ikasketen egiteko herriko beka esleipena (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herriko Kontseiluari eskatu dio herriko 34 beka horien esleipena bozkatzea, orotara 14 276 € heldu direlarik 2020-2021 ikasturterako.

Aho batez onartua.

16 – Turismo Bulegoari dirulaguntza aurretiaz ematea (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Turismo Bulegoaren aldeko 50 000€ko dirulaguntza aurretiaz ematearen alde bozkatzea, 2021eko hasierako aurrekontua bozkatu artean.

Aho batez onartua.

17 – Egur salmenta (Auzapezak aurkeztua).

Herri biltzarrari proposatu dio Arnagan bertan moztu beharreko egurraren salmenta prezioa honela finkatzea:

- Lurrean den egurra: 24 € /m3,
- Egurra zutik: 20 € /m3,
- Akazia zutik : 26 € / m3.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

18 – Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi kolegioaren arteko hitzarmena (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea hiruko hitzarmen baten izenpetzeko Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Errobi Kolegioarekin, asteazkenetan aisialdi gunean egoten diren ikasleentzako bazkarien hornitzeko.

Aho batez onartua.

19-A – AGAZ (Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa): OGEC-ek San Mixel kolegioaren lokalen eskura ezartzea (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea hiruko hitzarmen baten izenpetzeko OGEC eta San Mixel kolegioarekin ikastetxearen lokalak aisialdi zentroaren eskura ezartzeko eskola kanpoko garaietan (opor txiki eta handiak) 2021eko otsailaren 8tik urriaren 29ra

Aho batez onartua.

OGEC-ek Santa Maria eskolaren lokalen eskura ezartzea (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea hiruko hitzarmen baten izenpetzeko OGEC eta San Maria eskolarekin, ikastetxearen lokalak aisialdi zentroaren eskura ezartzeko udako oporretan, hots 2021eko uztailaren 8tik agorrilaren 14era

Aho batez onartua.

20 – Mugikortasunak – Hirigune Garraioen Plana (HGP/PDU) 2020-2030 (Goytino jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei eskatu die Ipar Euskal Herria Aturri Mugikortasunen Sindikatuak erabaki 2020-2030erako Hirigune Garraio Plan proiektuari buruzko iritzia ematea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala

Aho bateko aldeko iritzia.

Iritzi horrekin batera egin diren oharak honakoak dira:

Planak xede eta anbizio onak dituen arren, egingarritasuna dudana da:

- Urtean 100 milioi euro bideratzen dira ekintzetarako. Erraten dute « sindikatuak segituko duela partaidetzak lantzen eta proiektu eta ekintza planen diruztatzeko finantzakideak xerkatzen ». Horrek ezjakintasun handia sortzen du eman diren norabideen egingarritasunaz.
- Ezinbestekoa izanen da sindikatuak HGP horren segitzeko eta animatzeko beharrezkoak diren tresna eta langileak ukatea. Herri txikiei dagokienez bereziki, sindikatuak laguntza tekniko eta finantzazkoa ezarri beharko ditu.

21 – Langileria: enplegu baten sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Zerbitzuen Zuzendari Nagusia kontratatzeko, Auzapezak denbora osoko "attaché territorial" delako postu iraunkor baten sortzea proposatzen du 2021eko martxoaren 2tik goiti.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaltzen dizkie, Azalpen ohar sintetikoan agertzen diren, bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 21:50ean bukatu da.